



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainak 28**

**Vitoria-Gasteiz, 28 de junio de 2016**

## Lehendakaritza

### LEHENDAKARIAK ETA UNESCOKO ZUZENDARI NAGUSIAK ELKAR ULERTZEKO MEMORANDUM BAT SINATUKO DUTE DATORREN ASTEAN PARISEN

- **Memoranduma gaur onartu du Gobernu Kontseiluak eta Euskadiren eta Nazio Batuen menpeko erakundearen arteko elkarlanerako markoa indartzea du helburu.**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio gaur egindako bileran Eusko Jaurlaritzaren eta Unescoren artean elkar ulertzeko memorandum bat sinatzeko erabakiari. Memoranduma datorren asteartean, uztailaren 5a, sinatuko dute Parisen Iñigo Urkullu lehendakariak eta Irina Bokova Unescoko zuzendari nagusiak.

Gaur onartutako agiriak 1997. urtetik indarrean den Eusko Jaurlaritzaren eta Unescoren arteko elkarlan markoa indartzea du helburu. Hain zuzen ere, urte horretan sinatu zen bien arteko lehendabiziko memoranduma, Federico Mayor Zaragoza Unescoko zuzendari nagusi zela, eta bi urte geroago 2001 arte luzatu zen. Lehen memorandumaren baitan, 1998an borondate-akordio bat sinatu zuten bi aldeek ingurumenarekin lotutako jarduerak bultzatzeko plan zehatz bat garatzeko.

Elkarlan horri esker, gaur egun asko dira Unescoren sareko parte diren euskal gizarteko erakundeak, besteak beste, Unesco Etxea zentroa, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba, bost katedra eta horiekin lotutako hainbat eskola eta liburutegi, Euskal Kostaldeko Geoparkea eta gizateriaren ondare izendatutako hainbat leku (Altzerri, Ekain eta Santimamiñeko kobak, Bizkaiko Zubia eta Kostaldeko Done Jakue bidea).

Bi aldeek Parisen sinatuko duten testuak bai Unescok bai Eusko Jaurlaritzak lehentasunezko zat jotako elkarlanerako bi arlo zehazten ditu. Honako hauek hain zuzen:

**1.- Demokrazia, gobernua eta gobernantza ona.** Arlo honetan, sinatzaileek interesa dute demokraziaren eraikuntzan herritarren partaidetza bultzatuko duten gobernantza eredu berriak, gardentasuna, gobernantza ona eta kontuak ematea indartzeko.

**2.- Giza eskubideak eta bakearen kultura.** Arloetan giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia bultzatuko da hezkuntza arloan, politika eta praktika hezigarrietan giza eskubideen ikuspuntu transbertsala ezarriz.

Gainera, lehentasunezko bi arlo horiek zehazteaz gain, gaur onartutako memorandumak egun jada indarrean diren beste hainbat arlotan elkarlanean jarraitzeko konpromisoa ere jasotzen du, besteak beste:

- ✓ Esparru orokorra: Unescok Euskadira bisita instituzionalak egitea bultzatzea; euskal aholkulariak Unescora bideratzeko programa indartzea; eta Unescoren argitalpenak euskaratzea sustatzea, besteak beste.
- ✓ Hezkuntza: Unescoren Eskola Elkartuen Mundu Sarea indartzea; jardunbide onen trukea bultzatzea; garapen jasangarrirako hezkuntza sustatzea; hezkuntzan informazioaren eta komunikazioaren teknologien sarrera indartzea...
- ✓ Kultura: Kultura-ondarearen arloko elkarlana; kultura-ondare ukiezinak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena bultzatzea tokiko komunitate eta erakundeen gaitasunak indartuz; industria sortzaile eta kulturalen sustapenerako elkarlana indartzea; Unescoren Hiri Sortzaileen Sarea sustatzea...
- ✓ Gizarte eta giza zientziak: Bakerako kulturarteko elkarriketa sustatzea; programetan giza eskubideen, genero berdintasunaren, gardentasunaren eta gobernantza onaren ikuspegi transbertsala bultzatzea; gazteen partaidetza sustatzea; prozesu migratzaileetan sortutako aniztasunaren kudeaketako esperientzien trukea bultzatzea; euskal hiriek Unescok dituen hiriekin lotutako sareetan parte hartzea sustatzea...
- ✓ Natura-zientziak: Gizonaren eta biosferan gaineko programan (MAB) enpresa ekimen eta kudeaketa eredu alternatiboak sartzea bultzatzea; Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako garapen jasangarriko esperientziaren hedatze eta nazioartekotzea; Uraren Euskal Agentziak Nazioarteko Programa Hidrologikoko (IHP) jardueretan parte hartzea bultzatzea; Euskal Kostaldeko Geoparkea Europako Geoparkeen Sarean sartzea bultzatzea...
- ✓ Komunikazioa: Komunikabide independente eta pluralistak sortzea laguntzea, bereziki hizkuntza gutxituetan, eta Komunikazioa Garatzeko Nazioarteko Programarekin elkarlanean aritzea; hizkuntza aniztasuna *on line* sustatzea; ondare dokumentala zaindu eta hedatzea...

Memorandumak bi urteko indarraldia izango du sinatzen den unetik kontatzen hasita, eta berau indarrean jartzeko eta dagokion jarraipena egiteko ardura aldian-aldian bilduko den batzorde batek izango du. Batzorde sei lagunek osatuko dute gehienez ere.

## Lehendakaritza

### **GAZTEMUNDU 2016 PROGRAMAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA ONARTU DUTE; EUSKAL GASTRONOMIARI BURUZKOA IZANGO DA AURTEN**

Jaurlaritzaren Kontseiluak Gaztemundu programaren aurtengo deialdia onartu du, Euskal Etxeetako gazteek egonaldi bat egin dezaten Euskadin.

Programa horretara aurten 80.000 euro bideratu dira (jaz baino 30.000 euro gehiago), kanpoko euskal etxeetako 18 eta 35 urte bitarteko 25 gaztek gehienez, egonaldi bat egin dezaten Donostian urriaren 1etik 16ra.

Aurten, Gaztemundu programako partaideen prestakuntza **Euskal Gastronomiari** buruzkoa izango da, sektore horrek garrantzia du-eta Euskadin eta kanpoan ezarritako euskal komunitateetan. Izan ere, euskal jatetxe eta gastronomia elkarte ugari daude Euskal Etxe askotan eta horien inguru soziokulturalean.

Euskal Gizataldeen azken bi mundu batzarretan –2011n eta 2015ean izan ziren batzar horiek– nabarmendu zen garrantzitsua dela Euskal Etxeen bitartez sustatzea euskal gastronomiaren ezagutza, praktika eta hedapena, euskal emigrazioa jaso duten herrialdeetan gorde eta zabaldu behar den ondare kulturaltzat jotzen baita euskal gastronomia.

Horrela, adituek prestatutako gaikuntza programa baten hartuko dute parte aukeratutako pertsonak aurten; euskal gastronomiaren hainbat arlori buruzko “master class”ak emango dituzte adituok.

Egonaldian, bestalde, beste jarduera batzuk izango dituzte euskal jatorria duten gazteek aukera izan dezaten harremana izateko erakundeekin, elkarteekin, enpresekin eta Euskadin bizi eta lan egiten duten pertsonekin, baita Euskadiko eta kanpoko gazteen arteko harreman plataformak sortzeko ere.

Aurtengo programan parte hartzeko interesa dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, deialdia EHAAn argitaratu ondoren.

Gaztemundu programa Basque Country Estrategiaren barrukoa da –estrategia horren helburuetako bat da Euskadi kanpoan proiektatzea– eta 1996an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak Euskadiren egungo errealitatearen alde guztiak ezagutarazteko eta belaunaldi berriei aukera emateko euskal etxeetako bizitza aktiboan integratzeko.

Ordutik hona, 800 gaztek baino gehiagok hartu dute parte programa horretan (gehienak Argentinakoak eta Estatu Batuetakoak) eta orain Euskal Etxeetako

zuzendaritzetako kideak dira edota ardura postuak betetzen dituzte horietako askok.

### **Kanpo Harremanetan profesionalak espezializatzeko bekak.**

Bestalde, Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio Kanpo Harremanen alorrean profesionalak espezializatzeko beken deialdiari. Guztira, 160.000 euro izango dira horretarako.

Guztira, zortzi beka izango dira profesionalak espezializatzeko Kanpo Harremanen alorrean eta Europako Gaietan alorrean. Bekek 12 hilabete iraungo dute eta bekadunek Euskal Autonomia Erkidegoaren honako egoitza hauetan burutuko dute bere jardura:

- Lauk, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusian, Gasteizen. 16.000 € izango ditu beka bakoitzak.
- Bik, Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzan, Bruselan. 24.000 € izango ditu beka bakoitzak.
- Bik, Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkaritzan. Horietako batek, ordezkaritza horren egoitzan burutu beharko du, Santiago de Chilen (Txile) eta besteak, ordezkaritza horrek Bogotá (Kolonbia) duen bulegoan. 24.000 € izango ditu beka bakoitzak.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## Herri Administrazioa eta Justizia

### **EUSKADIKO AUZITEGI-MEDIKUEK, BESTEAK BESTE, DNA-RI, HERIOTZA BORTITZARI ETA NORTASUN-NAHASMENDUEI BURUZKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA JASOKO DUTE AURTEN**

- Eusko Jaurlaritzak eta Ikasketa Juridikoen Zentroak Euskadiko justizia-administrazioarako lan egiten duten auzitegi-medikuen prestakuntza indartzeko lankidetzaz hitzarmen bat sinatuko dute.
- Eusko Jaurlaritzak 80.000 euro inbertituko ditu 2016an Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko adituek profesionalak trebatzeko prestatu duten planean.

Justizia Ministerioaren mendeko Ikasketa Juridikoen Zentroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren arteko lankidetzaz hitzarmen bat, auzitegi-medikuak online trebatzeko helburua izango duena, sinatzeko baimena eman du gaur gobernu-kontseiluak.

Laster sinatuko dute Herri Administrazio eta Justizia sailburu Josu Erkorekak eta Ikasketa Juridikoen Zentroko zuzendari Antonio Zaratek. Lankidetzaz hitzarmenaren helburua Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko auzitegi-medikuek aipatutako zentroak antolatzen dituen online prestakuntza-jardueretan parte hartzea da.

Aurten, patologiaren, antropologiaren, psikiatriaren eta psikologiaren arloko auzitegi-tako profesionalak zuzendutako sei ikastaro gauzatuko dituzte. Besteak beste, heriotza bortitza, nortasun-nahasmenduak, DNA eta mendekotasun emozionala jorratuko dituzte.

Hitzarmen honen bidez, gainera, bi erakundeen arteko koordinazioaz arduratuko den «Segimendu Batzordea» sortuko dute.

### **2016KO PRESTAKUNTZA PLANA**

Eusko Jaurlaritzak Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko profesionalak trebatzea lehentasunez jotzen du. Hori dela eta, 2016an 80.000 euro bideratuko ditu Institutuak berak prestatu duen Trebakuntza Plana, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeak babesten duena, finantzatzeko.

## Herri Administrazioa eta Justizia

### **EUSKO JAURLARITZAK UKO EGINGO DIO ERTZAINZAREN AGENTEAK HAUTATZEKO PROZEDURA BERRIA BALIOGABETZEKO ESPAINIAKO GOBERNUAREN ERREKERIMENDUARI**

- Legegintzaldi honetan hirugarren aldia da Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuari gogorarazi behar diona Ertzaintzaren zuzkidurak, plantilla eta finantzaketa aldebiko adostasuna medio zehazten direla Segurtasunerako Batzordean, eta foru-araubide berezi baten arabera, betiere Gernikako Estatuaren eta Espainiako Konstituzioaren babesean.
- Gainera, Eusko Jaurlaritzak gogora ekarri nahi du Legebiltzarrak Ertzaintzaren plantilla gutxienez 8.000 agentekoa izatea onartu zuela, Segurtasun Batzordeak zehaztutakoaren arabera eta PPK hala proposatuta.
- Ertzaintzaren historiaren 30 urteotan Espainiako gobernuetako bat ere ez da saiatu agenteen hauta-probak gerarazten, gure polizia-kidegoaren singulartasun juridikoa aintzat hartuta.

Gobernu-kontseiluak Espainiako gobernuaren errekerimendua baztertzea adostu du gaur. Izan ere, Ertzaintzako lan-eskaintza publikoa geldiarazi nahi du, ez duelako betetzen Estatuak funtzio publikoari dagokionez ezarritako oinarrizko araudia, zehazki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 70. artikulua. Hain justu, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak egin du errekerimendua, Eusko Jaurlaritzak errekerimenduari men egin ezean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztuko duela ohartaraziz, hauta-prozesua gerarazteko.

Hirugarren aldia da legegintzaldi honetan Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuari gogorarazi behar izan diona Ertzaintzaren zuzkidurak eta plantilla zehazten direla Gernikako Estatuaren 17. artikuluan eta Espainiako Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritako foru-araubidearen arabera. Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuari gogorarazi nahi dio Ertzaintzaren plantilla aldebiko adostasunez zehazten duela Segurtasunerako Batzordeak, ez dagoela funtzio publikoaren gaineko Espainiako legeen mende. Era berean, halakoen finantzaketa Kontzertu Ekonomikoaren eta kupoaren sisteman ezarritako araubide berezi bati dagokiola nabarmendu nahi du Eusko Jaurlaritzak.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak berretsi duenez, orain dela 30 urte sortu zenetik, Ertzaintzak ez du inoiz hautaketa prozesurik egin Espainiako araudi orokorrari jarraiki; eta orain arte, ez da egon Espainiako gobernurik polizia-kidego horren berezitasun juridikoa urritzeko saiakerarik egin duenik.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuari adierazi nahi dio, 2014an aurkeztu zuen errekurtsoarekin bezala, atzera egin eta ez dezala

administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu. Aurkeztuz gero, Espainiako gobernuak euskal herritarrak kaltetuko dituela eta segurtasun-zerbitzu publikoa behar bezala eskaintzea eragotziko duela ohartarazi nahi du Eusko Jaurlaritzak.

## **ERTZAINZAREN OINARRIZKO ESKALAN SARTZEKO HAUTAKETAREN DEALDIADIA**

Ertzaintzaren XXVI. promozioko 250 plaza horien deialdia 2016ko apirilaren 25ean argitaratu zen EHAAn, eta hiru helburu ditu:

- Segurtasunerako Batzordearen akordioa betetzea, 2004ko azarokoa, Ertzaintzak betiere gutxienez 8.000 agente izan behar dituela zehazten duena.
- Eusko Legebiltzarrak 2010ean onartutako legez besteko proposamena betetzea, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diona eutsi diezaiola betiere gutxienez 8.000 agenteko plantillari, Segurtasunerako Batzordeak zehaztutako betez.
- Ertzaintzaren belaunaldien berritzeari aurre egitea eta egungo ertzainen batez besteko adina gaztetzea, datozen urteetan aurreikusten diren erretiroen bajak betez.



## Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

### **1.309.000 EUROKO DIRU LAGUNTZAK EUSKADIKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOETARAKO**

Eusko Jaurlaritzak 1.309.000 euroko diru-laguntzak emango dizkie Euskadiko Merkataritzako Bulego Teknikoei. Funtzio garrantzitsua betetzen dute merkataritza-politikak zabaltzen eta merkataritza-banaketaren sektoreari aholkularitza ematen.

Diru-laguntza hauek jaso ditzakete merkataritza-banaketan espezializatutako bulegoak, baldin eta zerbitzuak doan ematen badituzte eta helburu nagusien artean berrikuntzarekin, kalitate-prozesuekin eta teknologia berriekin lotutako prozesuen hedapena eta sensibilizazioa badituzte, baita enpresak informatzeko, ekintzailtzako eta hirugarren sektorerako tokian tokiko eta/edo eskualdeko estrategiak sustatzeko helburua badute ere. Era berean, inguruko saltokiei, bai kideuei bai kideu gabeei, zerbitzua eman behar diete, hala eskatzen badiete.

Aurtengo deialdian, gehienez 34 bulego lagunduko dituzte diruz, 27 tokian tokikoak eta 7 lurralde-eremukoak:

- Tokian tokiko diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte dagozkien ingurutik kanpo jarduten ez duten merkatarri-elkartek eta merkatarri-elkarteen taldeek, baita udalek eta udalek bultzatutako garapen-erakundeek ere. Udalerrri bateko elkarteren batek diru-laguntzak eskatzen baditu, baztertuta geratuko dira udalerrri horretako udala eta udalak sustatutako garapen-erakundeak.
- Lurralde-eremuko diru-laguntzen onuradunak, berriz, egoitza EAEn duten eta batez ere merkatarri-elkartez osatuta duten federazioek edo taldeek, eskatutako diru-laguntzaren lurralde historikoan jarduten badute.

Eskabideak aurkezteko epea aurtengo irailaren 9ko 12:00etan amaituko da. Eskabidera sartzea eta berori betetzea Internet bidez soilik egin ahal izango da, honako helbide honetan: [www.euskadi.net/comercio](http://www.euskadi.net/comercio). Eskabide-eredua esandako egoitza elektronikoa horretan egongo da eskura.

## Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

### **ONDARROAKO MERKATARIENTZAKO ZUZENeko DIRU-LAGUNTZAK KAMIÑALDEKO LUIZIAREN ONDORIOAK ARINTZEKO**

Joan den martxoaren 8an Kamiñalde mendi-hegalean izandako luiziaren kalteak jasan dituzten merkatariei 64.990 euroko diru-laguntza ematea onartu da.

Onuradunek 6.499 euro arte jaso ahal izango dituzte negozioak lekuz aldatu behar izanaren ondoriozko kontzeptu hauetako gastuak ordaintzeko laguntza moduan:

- Lokal berriaren alokairua.
- Lokal berriko ur-, argi- eta telefono-hornidura.
- Alokaturako lokala moldatzeko eta horniduretan alta emateko gastuak.

Lokalaren alokairua eta hornidura-gastuak estaltzeko diru-laguntza 6 hilez emango da.

Udalerrri horretako kaltetutako 12 merkatariekin zuzeneko harremana izan ondoren hartu da neurria, bileretan merkatariek azaldutako beharrik premiazkoenak kontuan hartuta.

## Enplegu eta Gizarte Politikak

### 1,2 MILIOI EURO GIZARTE EKONOMIA SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak hiru diru-laguntza ildo onartu ditu gaur, guztira, 1,23 milioi eurokoak, gizarte-ekonomia sustatzeko.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Ángel Toñak hala proposatuta, 610.000 euroko laguntza-ildo bat onartu da, EAeko gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeen elkartze-egiturak sendotzea izango duena helburu.

Hala, egitura-gastutzat hartuko dira langileen gastua eta funtzionamenduari lotua, egituraren ohiko jardueren ondoriozkoa (txosten juridikoak, auditoretza, marken defentsa eta babesak, etab.) eta erakundearen jabetzako higiezinari dagozkion amortizazioak.

Bigarren ildoak beste xede bat izango du, EAEn garatzen diren gizarte-ekonomiaren alderdi jakinei buruzko prestakuntza- eta hedapen-ekintzak finantzatzea, alegia. Horretarako 402.000 euro bideratuko ditu gobernuek.

Azkenik, hirugarren ildoak, 222.000 eurokoa, gizarte-ekonomiako enpresetako bazkideak gehitzera bideratuko dira. Urteetan zehar, langabetuak, desgaituak eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenen jabeak laneratzea lortzeko oso eraginkorra izan da programa hori.

## Enplegu eta Gizarte Politikak

### SINDIKATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Gobernuak sindikatuei 520.000 euroko diru-laguntza bideratzea onartu du; hain zuzen, Hauteskunde Sindikalen Batzordea, lurralde-batzordeak eta Hauteskunde Sindikalen Ikuskaritza osatzen duten sindikatuak (ELA, Euskadiko CCOO, LAB eta UGT-Euskadi) lagunduko dira diruz.

Laguntzok azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan jaso dira. Zehazki, bigarren xedapen gehigarrian, non ezartzen baita bi aukera daudela aurrekontu-kreditua banatzeko prozeduran: edo zenbateko bera banatzea sindikatu bakoitzari, edo sindikatu bakoitzak Euskadiko Autonomia Erkidegoan lortutako ordezkariaren arabera banatzea kopurua, aldez aurretik banaketa-akordiorik den sindikatuen artean. Ordezkaritza, beti ere, enpresetako langileen eta administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langileen ordezkari-organismoak hautatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hauteskundeetan lortutakoa izango da.

Iragan maiatzaren 2an, gai horri buruzko akordio batera iritsi ziren sindikatuak eta Eusko Jaurlaritzako Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria: erabaki zutenez, diru-laguntzaren kopuru bera banatuko zaio sindikatu bakoitzari.

### 36.000 EURO BIDERATUKO DIRA GUARDIAN ENPLEGU-ZENTRO BAT SORTZEKO

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Ángel Toñak hala proposatuta, Arabako Errioxako Guardiako kuadrillari diru-laguntza zuzena ematea onartu du, 36.600 eurokoa, eskualde horretan 2016ko maiatzaren 1etik 2017ko otsailaren 28ra bitartean enplegu-zentro bat abian jartzeko.

Enplegu-orientaziorako zerbitzua izango dute eskura eskatzaileek eta erabiltzaileek, enplegua bilatzeko baliabideei buruzko autokontsulta-tresnak dituen, bai eta laneratze-ibilbidean eta dauden tresna pertsonalatuak erabiltzen laguntza ere.

Enplegu-zentroak zerbitzu emango die langabeei, langabezia arriskuan dauden landunei edo enplegu-hobekuntzako egoeran daudenei, potentzialki aktiboak direnei eta, oro har, lan egiteko adinean dauden guztiei, enplegu-bilaketa aktiboa egiteko interesa izanez gero.

Zerbitzuaren erabiltzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egongo dira aldez aurretik, eta alta edo administrazio-geldiera egoeran.

## Ogasuna eta Finantzak

### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEN KONTUAK IKUSKATZEKO ERABAKIA**

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeak ikuskatzeari buruzko erabakia onartu du 2016, 2017 eta 2018rako.

Hitzarmen honek, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legean ezarritako kontabilitate-, ekonomia- eta finantza-kontrola betez, prozedura bat ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek beren urteko kontuak ikuska ditzaten eta barne-kontrolako txostenak, aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoak eta legezketasunari buruzkoak egin ditzaten, aurreko urteetan bezala.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### 1,2 MILIOI EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREKO LIBURUTEGIENTZAT

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu ditu, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegi publikoetarako diru-laguntzak arautzen dituzten hiru Agindu onartu ditu. Deialdi hauen bidez, liburutegietako funtsak erosteko, teknologia berriak ezartzeko eta irakurketa sustatzeko jarduerak lagunduko dira diruz, orotara, 1.278.000 euroko kopuruarekin.

Deialdi hauetan lehenak 670.000 euroko diru kopurua du, eta lehen aipaturiko sarea osatzen duten liburutegi publikoen liburu-funtsak berritu edo handitzeko diru-laguntzak ematen ditu. Laguntzok jasotzen dituzten liburutegiek honako hauetarako erabili beharko dituzte laguntzak: liburutegi sortu berrien kasuetan, sorrerako liburu-sortak erosteko, edo liburu-funtsak berritzeko, lehendik sorturik dauden liburutegietan. Bi kasuetan, diru-laguntzaren % 10 gutxienez, Euskadin argitaratutako obrak erosteko erabili beharko da.

Deialdi honen helburu nagusia da udalei eta toki erakundeei laguntza ekonomikoa eskaintzea, euren liburutegiek beti izan ditzaten funts zabalak eta eguneratuak. Ezinbesteko baldintza gertatzen da hau liburutegiek herritarrentzat kulturarako nahiz ezagutzarako sarbide izaten jarrai dezaten.

Era berean, eta 350.000 euroko diru-kopuruz, liburutegi publikoetan teknologia berriak ezarri edo garatzeko diru-laguntzak ematen dituen Agindua ere onartu du Gobernu Kontseiluak.

Deialdi honen bidez, diruz laguntzen dira, sareko liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edo garatzeko elementuak eskuratzeko jarduerak. Zehazki:

- Hardware edo euskarri fisikoa: ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, PDAk, eskanerrak, pantailak, routerrak, biltegitratze unitateak, liburu elektronikoen irakurgailuak, tabletak...
- Softwarea (liburutegiaren kudeaketarako softwarea izan ezik)
- Telekomunikazioak. Komunikazio-sareak instalatzea.

Gaur onarturiko Aginduetan hirugarrenak, eta 258.000 euroko diru kopurua daukanak, irakurketa sustatzeko eta liburutegi publikoen zerbitzu publikoen erabilera sustatzeko laguntzak ematen ditu, bereziki haur eta gazte zuzendutako gazteentzako jarduerari begira.

Deialdi honen bidez diruz lagun daitezkeen jardueren artean nabarmentzekoak dira: Profesionalen berariazko prestakuntzara bideratutako jarduerak, haur edo gazte-irakurketako jarduera osagarriak (ipuinaren ordua, irakurketa-tailerrak...),

erakusketa bibliografikoak, idazleekin solasaldiak, haur eta gazte literatura lehiaketak...

Jakinik haurtzaroan eta gaztaroan errazago hartzen dela liburuekiko zaletasuna eta liburutegiak erabiltzeko ohitura, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lehentasuntzat du batez ere herritarren parte horren beharrezanean erantzutea. Beraz, udal eta toki erakundeei laguntza ekonomikoa eskaintzen die sustapen jarduera horiek burutu ditzaten.

Joan zen 2015 urtean, Euskadiko 200 udal edo toki erakunde inguruk eskuratu zuten diru-laguntza hiru deialdi hauetakoren batean gutxienik: 180 udal edo toki erakundek liburu-funtsak erosteko laguntzak eskuratu zituzten; 116k teknologia berriak ezarri edo garatzeko; eta 152k irakurketa sustatzeko jarduerak burutzeko.

Hiru diru-laguntza lerro hauen onuradun daitezke liburutegi publikoen titular diren Euskadiko udalak, tokiko erakunde eskudunak eta udal-liburutegi publikoen arloko zereginak esleituta dituzten udal-erakundeak.

### **290.000 EURO TOKI ERAKUNDEEN ARTXIBOETARAKO**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, 2016an toki erakundeei beren artxibo sistema propioa jartzeko edota sendotzeko diru-laguntzak deitzen dituen Agindua. Era berean, deialdi honen bidez, artxibo sistema horiek ezartzeko proiektuak egitea ere laguntzen da diruz.

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira, xede hauetakoren bat edo batzuk dituzten proiektuak: funtsak deskribatzeko tresnak sortzea edo hobetzea; dokumentu-funtsak baloratzea eta aukeratzea, betiere funtsak kontserbatzeko edo suntsitzeko politika orokor baten atal gisa; kultura-zabalkunderako artxibo-jarduerak; dokumentuak, funtsak eta dokumentu-bildumak digitalizatzeko jarduerak, batez ere 50 urte edo gehiago badituzte.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 290.000 euro bideratzen ditu diru-laguntza hauetarako, eta hauen onuradun izan daitezke udalak, udalek baino lurralde txikiagoa hartzen duten entitateak eta toki-izaera duten udalaz gaindiko entitateak.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **160.000 EURO EUSKAL KULTUR ONDAREAREN EREMUAN IKERKETAK BURUTZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, 2016 eta 2017 urteetan Euskal Kultur Ondarearen eremuan ikerketak burutzeko diru-laguntzak deitzen dituen Agindua.

Biurteko deialdi honek 160.000 euroko diru kopurua dauka, eta helburuen artean honako hau du: Euskal Autonomia Erkidegoko kultura ondarea hobeto ezagutarazteko, irizpide oinarrituak ezartzeko nahiz ondare hori babesteko lagungarri izango diren tresna baliagarriak sortuko dituzten ikerketa-proiektuak diruz laguntzea. Deialdi honetan, ondare kontzeptua zentzurik eta zabalenean ulertzen da, eta bere barne hartzen ditu ondare materiala –higiezina nahiz higigarria- eta ondare ez materiala. Laguntzak gastuen 100%-era ere iritsi ahal izango dira, 16.000 euro proiektuko gehienez.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke, ondorengo goi mailako unibertsitate titulu edo graduetakoren bat dutela egiaztatzen duten pertsona fisikoak: Geografia eta Historia, Historia, Filosofia eta Letrak (Geografia eta Historia atala) edo parekideak. Baliozkoak izango dira espezialitate hauetako goi mailako titulazioak ere: Antzinako Historia, Erdi Aroko Historia, Modernoa, Garaikidea, Arkeologia edo Prehistoria. Baita Kultura Ondarearen ikerketarekin estuki loturik dauden hauek ere: Antropologia, Paleontologia, edo Artearen Historia.

Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuek abiatuak egon beharko dute dagoeneko, edo 2016 urtean hasiak izan, eta 2017ko urriaren 2a baino lehen amaitu.



## Ingurumena eta Lurralde Politika

**GOBERNU KONTSEILUAK PREMIAZKOTZAT JO DU «ERANDIOKO UDONDOKO BILTODIA, LUTXANAKO PONPATZE-ESTAZIOKO GAINEZKABIDEA BERRITZEKO PROIEKTUAK» ERAGINDAKO LURREN ETA BESTE ONDASUNEN OKUPAZIOA**

Gobernu Kontseiluak premiazkoztat jo du beharrezkoak diren eta izapide-espeditentean zehaztutako ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, nahitaezko desjabetze bidez, «Erandioko Udondoko biltodia, Lutxanako ponpatze-estazioko gainezkabidea berritzeako proiektua» gauzatzeko.

## **IZENPENAK ETA KARGU-KENTZEAK**

### **HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**

Dekretua, Clara Montero Tellechea andrea Kultura Sustatzeko zuzendari kargutik kentzea, egindako lanagatik eskerrak ematea.

### **INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA**

Dekretua, Marco Boronat Elizalde jauna Garraio Plangintzaren zuzendari kargutik kentzea, egindako lanagatik eskerrak ematea.

## Presidencia

### EL LEHENDAKARI Y LA DIRECTORA GENERAL DE LA UNESCO FIRMARÁN LA PROXIMA SEMANA EN PARÍS UN MEMORANDO DE ENTENDIMIENTO

- **El Memorando ha sido aprobado hoy por el Consejo de Gobierno y su objetivo es fortalecer el marco de colaboración que Euskadi viene manteniendo con este organismo de la ONU.**

El Consejo de Gobierno ha dado en su reunión de hoy el visto bueno a la firma de un Memorando de Entendimiento entre el Gobierno vasco y la UNESCO. El memorando será suscrito el próximo martes, 5 de julio, en París por el lehendakari Iñigo Urkullu y la directora general de la UNESCO Irina Bokova.

El documento hoy aprobado tiene por objeto fortalecer el marco de colaboración que mantiene desde hace años el Ejecutivo vasco con la UNESCO, y que se remonta a 1997 -año en el que se firmó el primer Memorando con el entonces director general Federico Mayor Zaragoza- que dos años más tarde fue prorrogado hasta 2001. En el marco de este primer memorando, se suscribió en 1998 un Acuerdo de Voluntades para el desarrollo de un plan específico de actividades en materia de medio ambiente.

Fruto de esta colaboración son el gran número de organizaciones de la sociedad civil vasca que forman parte de la red de la Unesco, tales como el Centro Unesco Etxea, la Reserva de la Biosfera del Urdaibai, cinco Cátedras, varias escuelas y bibliotecas asociadas, Bilbao ciudad creativa del diseño, el Geoparque de la Costa Vasca y varios lugares declarados Patrimonio de la Humanidad: el Puente Colgante de Bizkaia, las cuevas de Altxerri, Ekain y Santimamiñe, y el Camino de Santiago de la Costa en lo que concierne al País Vasco.

Así, el texto que será firmado en París establece dos áreas de colaboración que son consideradas prioritarias tanto por el Gobierno Vasco, como por la UNESCO. Estas son:

**1.- Democracia, gobierno y buena gobernanza.** En esta área, las entidades firmantes están interesados en fortalecer nuevos modelos de gobernanza que potencien la participación de la ciudadanía en la construcción democrática, la transparencia, la buena gobernanza y la rendición de cuentas, a fin de promover procesos democráticos participativos.

**2.- Derechos humanos y cultura de paz.** En estas materias se colaborará de acuerdo con un enfoque basado en los derechos humanos en el ámbito educativo, por lo que adoptará una perspectiva transversal de derechos humanos en las políticas y prácticas educativas.

Además de estas áreas prioritarias, el memorando hoy aprobado recoge el compromiso de seguir trabajando conjuntamente en ámbitos en los que actualmente ya se está colaborando, como son:

- ✓ Ámbito general: Promoción de visitas institucionales de la UNESCO al País Vasco; refuerzo del programa de traslado de consultores vascos a la UNESCO y; edición de publicaciones de este organismo en euskera, entre otras iniciativas.
- ✓ Educación: Fortalecimiento de la Red de Escuelas Asociadas; fomento del intercambio de buenas prácticas; promoción de la Educación para el Desarrollo Sostenible; refuerzo de la introducción de las TIC de educación....
